

Errumaniarrentzako bioeraikinak botatzeko eskatu du URA agentziak

Urteak daramatzate ehun inguru errumaniar ijitok Urumea ibaiaren ondoan, Astigarragako lurretan bizitzen. Bizileku dituzten txabolak behin baino gehiagotan harrapatu ditu urak. Orain, Eusko Jaurlaritzako Uraren Euskal Agentziak adierazi die bioeraikinik jasotzerik ez dagoela, uholde arriskuengatik.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE / URKO APAOLAZA AVILA |

ASTIGARRAGA eta Hernaniko udalek, eta Romi Bidean eta Ekian elkarteek Romi Etxea ikastaroa jarri dute abian, Urumea ibaiaren ondoan bizi diren errumaniar ijitoak bioeraikuntza tekniken bidez egindako txabolatan bizi daitezten. Zentro sozial bat eta komun lehor ekologikoak eraikitze asmoa ere badute. Zenbait eraikinen egurrezko egiturak jasota daude jadanik eta etxeko pareta bihurtuko den lasto eta buztinezko materiala ere osatzen ari dira.

Alabaina, Uraren Euskal Agentziak (URA) eraikin horiek bertatik berehala kentzeko eskatu du, uholde lurrak izanik, pertsonentzako “benetako arriskua” dagoela iritzita. Bestalde, lur horien jabeari zigor espediente irekiko dio.

URAk txostena egin du romiak bizi diren Urumea ondo-ko lurrei buruz. Txostenaren arabera, Romi Etxea izango denaren egitura Urumea ibaitik hogeitrametrora eta Oialume errekatik bost metrora jaso dute. Agentziak dio hamar urtean behin uholdeak izaten direla eremu horretan eta ibai ertzak antolatze lurraldearen arloko planaren arabera ibaitik gutxienez 50 metrora egin daitezke eraikin berriak. Iñigo Ansola zuzendariaren hitzetan “pertsonek bizitza dago jokoan eta URAREN lana da egoera horietan segurtasuna bilatzea”.



Nola-hala egindako txabolak bioeraikinekin ordezkatzeko du helburu ikastaroak.

Bestalde, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoaren ustez “txabola horien eraikuntzak ez du gutxieneko segurtasunik eskaintzen”. Izan da “txabolismoarekin akabatu” beharraz hitz egin duen politikaririk ere.

Zergatik orain arte ez da pertsona horien segurtasunaren inguruan neurririk hartu?

Ehundik gora lagunek urteak daramatzate autobidearen zubipean bizitzen. Astigarragako udalak, Gipuzkoako Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak bost urteko programa abiarazi zuten 2012an; euren bizimodua aldatzeko baldintza batzuk betez gero, romiak terreno horietan gera zitezkeen. Orain arte, nola-hala egindako txabolatan egin izan dute lo, eta azken urteetan behin baino gehiagotan izan dute uholdeen bisita.

Zergatik orain arte ez da pertsona horien segurtasunaren inguruan neurririk hartu? Txabola kaskarretan bizitzen segituz gero –bioeraikinak botatzeko eskatu dute, baina ez aurretik egindakoak– ez al dira modu berean arriskuan izango? Hernaniko alkate Luis Intxausperen esanetan “arazoa ez dira orain ikastaroan egiten ari garen eraikinak; 2010etik bizi dira bertan errumaniarrak eta arrisku gunean bizi dira eta bizi izan dira urte guzti hauetan”.

URAREN aginduak sortutako egoera aztertu eta konponbidea emateko erakunde arteko mahai bat jarri nahi dute martxan Hernaniko udalean. Astigarragako udalak, bestalde, azaldu du ez dela “polemika antzuetan” sartuko eta ez duela adierazpenik egingo ikastaroak iraun bitartean. ■

